



## Izar saltzailea

### Liburuaren fitxa

#### Problematika

Xubanek tratuen egiteko bide berria aurkitu du: izarrak hartu eta jendeari saltzea. Marketing kanpaina bizia egin du, herritar bakoitza bere izarraren ukaitera konbentzitzeko. Hasieran denak kontent ziren, baina gero izarrak agortzen hasi ziren eta jende batzuk gabe gelditu; izarrak zituztenak aspertu ziren... Hortik gatazka sortu zen, eta batzuek aldarrikatu zuten izarren lekua zerua zela, ez kaiola. Izarrak “askatu” zituztenak preso sartu zituzten, baina azkenean Xubanek berak ikusi zuen mundua tristeago zela zeruan izarrak gabe, eta izarren libratzea erabaki zuen.

#### Narrazioa

1. Xubanen ideia
2. Ideiaren arrakasta
3. Ideia ona, frustrazio iturri bihurtzen da laster
4. Eztabaida eta gatazka: izarrak saldu behar dira?
5. Krisia eta Xubanen autokritika
6. Zorion berreskuratua eta askatasuna

#### Pertsonaiak

**Xuban:** Ideia ustez aitzindari bat izan duen tratularia. Izarren biltzea erabaki du eta horien salgai jartzea. Hala aberastu da, baina negozio horrek arazoak sortu dizkio herriari, eta azkenean Xuban damutu da.

**Laida:** Hasieran izarrak gabe gelditzeagatik triste zegoen, baina ondotik izarrak kaiolan egotea naturala ez dela ohartzen da. Beraz Izarren Askapenerako Mugimendua sortzen du. Horregatik, preso sartzen dute.

**Laidaren ahizpa:** Izarraren lehen erosleatarik bat; berekoi gisa jokatzen du bere izarrarekin.

#### Denbora eta espazioa

**Denbora:** Narrazioan ez da zehazten zenbat egun iragaten den hastapenetik bukaerara. Baina izan litezke hilabeteak. Egoera batetik bestera pasatzean, hilabeteak pasa litezke (adibidez, izarrak bukatzen direnean; edo izarren ilusioa bukatzen denean, afixa urratua duen irudian).

**Espazioa:** Ez da zehaztua, baina dena herri batean gertatzen da. Izan liteke mundua ere, baina herria hautatu da, herri aski xume edo ttipia, leku goxoa.

#### Ilustrazioak

Koloreak garrantzitsuak dira. Kolore eta argiztapena egoeraren adierazle dira (goxotasuna, alaitasuna, tristura...). Kolore estiloa goxoa da.

Plano hertsia eta zabalak erabiltzen dira.

Xehetasunak ere garrantzitsuak dira, objektuak, loreak, jantziak...

#### Mezua

- Bada edozerekin negozioaren egiteko gogoia duen jendea, baina dena ezin da pribatizatu edo salgai jarri. Izarrak metaforak dira, bistan da, baina zenbat gauza

badira pribatizatu litezkeenak edo pribatizatu direnak? Zer ez litzateke saldu behar? Oxigenoa, ura... eta beste zer?

- Kontsumoaren munduan, tarrapatan ibiltzeko joera, gauzak fite baztertzen ditugu, ahanzten...
- Egoera kaltegarriei jazartzea gaizki ikusia da, eta zigortua. Baina emeki emeki sostengu handiagoa erdiets daiteke, eta orduan jazarri dena bihur liteke irabazle. Zein zaila den arrazoia duen lehena izatea. Horri loturik, nahi bada, bakeari buruzko gogoeta: zer den bakea eta zer den justizian oinarritzen den bakea.
- Elkarrekin egon behar dutenak ezin dira baztertu, isolatu. Bestela indarra galtzen dute. Pertsonen arteko isolamenduaren kalteei buruzko ohartzea izan liteke.
- Ez da gaiztorik ezta gisakorik ere. Xuban ez da aurkezten pertsona gaizto gisa. Enpatia diogu.
- Amestearen garrantzia, poesiaren goraiapatzea.